

HERRI DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 13a

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, besteak beste, honako erabaki hauek hartu ditu:

2019ko Ekarpenen likidazioa

2019ko ekitaldia ixtean, foru aldundiek zerga itunduen bidez lortutako diru-bilketa 15.469,6 milioi eurokoa izan da guztira; horrek esan nahi du urte arteko hazkundea % 3,3koa izan dela, eta joan den urrian egindako azken aurreikuspenaren gaineko gauzapena % 100,6koa izan dela.

RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS. 2019 ZERGA ITUNDUEN DIRU-BILKETA. 2019				
(euros/eurotan)	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL / GUZTIRA
IRPF / PFEZ	878.714.845	2.970.862.320	1.864.094.061	5.713.671.226
I. SOCIEDADES / SOZETATEEN g/Z	213.242.417	754.505.858	336.044.010	1.303.792.285
IVA / BEZ	987.482.732	3.039.011.264	2.002.094.109	6.028.588.105
I. ESPECIALES FABRICAC. e IE DE ELECTRIC./ FABRIK. Z. BEREZIAK eta ELEKTRIZ./ZERGA	262.144.066	806.757.165	531.489.891	1.600.391.122
RESTO TRIBUTOS / GAINERAKO ZERGAK	108.757.838	423.979.837	290.406.444	823.144.119
TOTAL / GUZTIRA	2.450.341.898	7.995.116.444	5.024.128.515	15.469.586.857

Behin betiko zerga bilketa eta Estatuari ordaindutako behin betiko kupoa (947 milioi euro, finantza-konpentsazioak eta enplegu-politika aktiboen finantzaketa

barne) ezagututa, erakunde erkideei 2019ko ekitaldian egin beharreko ekarpenen likidazioa kalkulatu da indarrean dagoen araudiaren arabera. Behin betiko zenbatekoa 10.371,6 milioi eurokoa da, aurrekontuan jasotako ekarpenak baino 216 milioi gehiago.

APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES AL GOBIERNO VASCO. 2019 FORU ALDUNDIEK EUSKO JAURLARITZARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK. 2019				
(euros/eurotan)	ARABA / ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL
Coeficiente Aportación Ekarpen koefizientea 2019	16,38%	50,41%	33,21%	100,00%
APORTACIONES EKARPENAK 2019	1.698.878.618	5.228.355.994	3.444.429.727	10.371.664.339

2019ko Egokitzapenerako Funts Orokorren likidazioa

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2019 ekitaldirako Egokitzapenerako Funts Orokorra 137,5 milioitan likidatzea onartu du. Funts horren finantzaketa % 70,04an Eusko Jaurlaritzari dagokio, eta foru aldundiei gainontzeko % 29,96a. Funtsa Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoen artean banatuko da, eta horiei 64,1 eta 73,4 milioi euro dagozkie, hurrenez hurren.

FONDO GENERAL DE AJUSTE. 2019 EGOKITZAPENERAKO FUNTS OROKORRA. 2019		
(euros/eurotan)		
GOBIERNO VASCO / EUSKO JAURLARITZA	70,04%	96.335.641
DIPUTACIONES FORALES / FORU ALDUNDIAK	29,96%	41.208.107
Araba / Álava		6.749.888
Bizkaia		20.773.007
Gipuzkoa		13.685.212
TOTAL / GUZTIRA		137.543.748

Distribución Fondo General de Ajuste: Egokitzapenerako Funts Orokorren banaketa:

Araba / Álava	64.088.177
Gipuzkoa	73.455.571

Ezohiko Funtsa

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2019ko otsailaren 14an egindako bileran, ezohiko funts bat eratzeko erabakia hartu zuen. Funts hori aktibatuko litzateke, baldin eta EAEko diru-bilketa osoan foru-aldundi bakoitzak duen partaidetza erlatiboa, ekitaldiko Egokitzapenerako Funts Orokor likidatuari egindako ekarpen garbia kendu ondoren, ez bada koefiziente horizontalaren % 99ra iristen. Funts horrek ekitaldiko likidazioan banatu beharreko baliabideen % 0,45eko muga du, eta % 50ean finantzatzen du Eusko Jaurlaritzak eta gainerako % 50ean foru-aldundiek.

2019ko Egokitzapenerako Funts Orokorren likidazioa aplikatu ondoren, 5,6 milioi eurotako Ezohiko Funtsa eratu da Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoen artean banatzeko (2,5 eta 3,1 milioi euro, hurrenez hurren).

FONDO EXTRAORDINARIO. 2019 EZOHICO FUNTSA. 2019

(euros/eurotan)

GOBIERNO VASCO / EUSKO JAURLARITZA	50,00%	2.798.407
DIPUTACIONES FORALES / FORU ALDUNDIAK	50,00%	2.798.407
Araba / Álava		458.379
Bizkaia		1.410.677
Gipuzkoa		929.351
TOTAL / GUZTIRA		5.596.814

Distribución Fondo Extraordinario: Ezohiko Funtssaren banaketa:

Araba / Álava	2.519.215
Gipuzkoa	3.077.599

Larrialdietarako erakunde arteko Funtsa

Zaldibarko Verter Recycling enpresan istripuak eragindako egoera larria dela eta, bai Eusko Jaurlaritzak bai Bizkaiko Foru Aldundiak erabateko konpromisoa erakutsi dute beharrezko baliabide ekonomiko eta giza baliabide guztiak ematen jarraitzeko, batetik, tokitik gertu dauden eremuen osasun publikoa bermatzen jarraitzeko, eta, bestetik, gorputzen erreskate lanetan edo lurraren egonkortze eta analisisan esku hartzen duten pertsonen segurtasuna bermatzen jarraitzeko.

Bileraren beste gai batzuen atalean, erakunde guztiek adostu dute Larrialdietarako erakunde arteko Funtsa bat sortzea eta lantalde bat eratzea kasuistika desberdinak aztertu eta zehazteko, bai eta horren zenbatekoa ere. Talde hori Eusko Jaurlaritzako bi ordezkari, foru aldundi bakoitzeko bi ordezkari eta udalerrietako bi ordezkari osatuko dute.